

## BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA 2009

### GAIAK

<b>6. FINALAURREKOA – IRUÑEA</b> <b>Aurkezlea: Alaitz Rekondo</b>
--

#### 10eko handia

Julio Soto eta Iñaki Zelaia

Bi guraso zarete. Egunero joaten zarete parkera zuen umeekin. Ohartu zarete zuen umee beren lagun bat baztertzen dutela.

Julio hasita, hiruna bertso hamarreko handian.

Ametz Arzallus eta Aitor Mendiluze

Transexualak zarete. Lege-aldaketarekin, ebakuntza egiteko aukera duzue orain. Gaur duzue ebakuntza prestatzeko lehen kontsulta. Itxarongelan zaudete.

Ametz hasita, hiruna bertso hamarreko handian.

Unai Iturriaga eta Onintza Enbeita

Irakasleak zarete. Hezkuntza Departamentutik, ohar bat iritsi zaizue Euskal Herria hitza erabili eta agertzen duten testu-liburuak baztertzeko exijituz. Liburu horiek apaletatik kentzen ari zarete.

Unai hasita, hiruna bertso hamarreko handian.

#### 8ko txikia

Julio Soto eta Amets Arzallus

Euskaltegiko irakaslea zara, Julio. Gaur, Amets ikaslea Bizkaian pasa duen asteburua kontatzen hasi da, eta esan dizu zuk irakatsitakoak ez diola deusetarako balio izan.

Julio hasita, hiruna bertso zortziko txikian

Iñaki Zelaia eta Unai Iturriaga

Ezkontza-eguna duzue, Iñaki eta Unai. Zuk, Iñaki, gaur goizean, egunero bezala, horoskopolari begirada bat bota diozu jaiki orduko, eta egun txarra izanen duzula irakurri duzu.

Iñaki hasita, hiruna bertso zortziko txikian

Aitor Mendiluze eta Onintza Enbeita

Onintza ama adinekoa eta Aitor semea zarete. Zuk, Aitor, kubatar bat hartu zenuen Onintza zure ama zaintzeko. Gaur, etxera etorri, eta kubatarrarekin saltsa dantzatzen aurkitu duzu zure ama.

Aitor hasita, hiruna bertso zortziko txikian

### 10eko txikian

Amets Arzallus eta Unai Iturriaga

Erabaki zenuten 7 urte izan arte ez zeniotela esango zuen haurrari adoptatua zela. 7. urtebetetze-eguna du gaur. Zuk, Amets, esan egin nahi diozu; Unaik, ez.

Amets hasita, hiruna bertso hamarreko txikian.

Aitor Mendiluze eta Julio Soto

Bulego batean egiten duzu lan, Aitor. Julio bulego horretako garbitzailea da, eta gauero etortzen da garbiketa egitera. Azkenaldian, goizero, opariren bat aurkitzen duzu mahaiaren gainean. Gaur, Julio garbitzailea etorri arte geratu zara bulegoan, Aitor.

Aitor hasita, hiruna bertso hamarreko txikian.

Onintza Enbeita eta Iñaki Zelaia

Txikitatik, lagunak zarete. Onintza, ospitalean hilabete daramazu, eta gaur etorri zaizu Iñaki bisitan lehen aldiz.

Onintza hasita, hiruna bertso hamarreko txikian.

### Lauko handian

Unai Iturriaga eta Julio Soto

Mitin bat entzuten ari zarete, lehen lerroan jarrita. Ezin diezue begiei zabalik eutsi.

Unai Iturriaga hasita, seina koplak, lauko handian.

Onintza Enbeita eta Amets Arzallus

Pisukideak zarete. Ura aurrezteko, elkarrekin sartu zarete dutxan gaur.

Onintza hasita, sei koplak, lauko handian.

Iñaki Zelaia eta Aitor Mendiluze

Animalia exotikoen zaleak zarete. Etxean pitoiak, tarantulak, eskorpioiak, eta halakoak dituzue. Orain, egongelako mahaiaren gainean zaudete biak, azpian duzuen saguarekin ikaraturik.

Iñaki hasita, seina koplak, lauko handian.

### Kartzela

Etxeko leihotik begiratu, eta ikusi duzu kazetari mordo bat dagoela zure zain.

Hiru bertso nahi duzun doinu eta neurrian.